Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko azaroaren 12a, osteguna — 216 — Jueves, a 12 de noviembre de 2026

ORIOKO UDALA

2026. urteko kirol-ekintzak eta jarduerak finantzatzeko diru-laguntzak.

Orioko Udaleko 900/2026 alkate dekretuz, 2026ko azaroaren 3koa, dirulaguntzak emateko deialdi hau onartzen duena: Orioko irabazteko asmorik gabeko elkarte eta taldeentzako dirulaguntza ez-ohiko jardueretarako.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke.

1. Dirulaguntzaren xedea.

Deialdi honen xedea da Orioko irabazteko asmorik gabeko elkarte eta taldeentzako dirulaguntza ez-ohiko jardueretarako.

2. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Emango diren dirulaguntzen batura, gehienez ere 6.000,00 eurokoa izango da, hauetan: 1 0615.481.02.341.00 2026 (5151) Kirolak kontu-sailaren kontura.

3. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko abenduaren 15a izango da, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Orio, 2026ko azaroaren 3a.—Anuska Esnal Oliden, alkatea. (7272)

2026. urteko kirol-ekintzak eta jarduerak finantzatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak.

1. Eskumena.

Araudi hau Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 4.1 b) eta 25. artikuluak ematen dituen eskumenei jarraituz eta Toki Korporazio Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluen eta ondorengoen arabera onartzen da. Diru-laguntzaei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen zuzenbidea jarraitzen du.

2. Helburua.

Deialdi honen helburua hau da: Orioko irabazi asmorik gabeko kirol-elkarteek edo kirol-entitateek 2026 urtean zehar egingo dituzten jarduera eta egitasmoak diruz laguntzeko Udalak erabiliko dituen irizpideak finkatzea eta prozedura zehaztea.

3. Lagunduko diren jarduera-motak.

Dirulaguntzak eskatu ahal izango dira Orion egingo diren eta ohiko denboraldiko jardueretatik kanpoko izaera berezia duten kirol-ekitaldi edo -jardueretarako.

Ez dira ezohiko jardueratzat hartuko erakundearen ohiko denboraldiko entrenamenduak, lehiaketak edo urteko jarduerak, deialdi honetako helburu zehatza betetzen ez badute.

AYUNTAMIENTO DE ORIO

Subvenciones para financiar las actividades y eventos deportivos del año 2026.

Mediante Decreto de Alcaldía n.º 900/2026, de 3 de noviembre de 2026, el Ayuntamiento de Orio aprueba la siguiente convocatoria de subvenciones: subvenciones para actividades extraordinarias destinadas a asociaciones y grupos sin ánimo de lucro de Orio.

De conformidad con lo establecido en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria. El texto íntegro puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

1. Objeto de la subvención.

La convocatoria tiene por objeto conceder subvenciones para actividades extraordinarias a asociaciones y grupos sin ánimo de lucro de Orio.

2. Importe de las subvenciones.

El importe total de las subvenciones concedidas no podrá superar los 6.000,00 euros, con cargo a la partida presupuestaria 1 0615.481.02.341.00 2026 (5151) Deportes.

3. Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 15 de diciembre, contado desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Orio, a 3 de noviembre de 2026.—La alcaldesa, Anuska Esnal Oliden. (7272)

Bases para la concesión de subvenciones para la financiación de actividades y eventos deportivos del año 2026.

1. Competencia.

Este reglamento se aprueba de conformidad con las competencias otorgadas por los artículos 4.1 b) y 25 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local y de acuerdo con los artículos 23 y siguientes del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales. Sigue el derecho de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

2. Objeto.

El objeto de esta convocatoria es establecer los criterios y detallar el procedimiento que utilizará el Ayuntamiento para subvencionar las actividades y proyectos que las asociaciones o entidades deportivas sin ánimo de lucro de Orio lleven a cabo durante el año 2026.

3. Tipos de actividad subvencionables.

Se podrán solicitar subvenciones para eventos o actividades deportivas que se celebren en Orio y que tengan un carácter especial ajeno a las actividades de la temporada habitual.

No se considerarán actividades extraordinarias los entrenamientos, competiciones o actividades anuales de la temporada habitual de la organización, a menos que cumplan con el objeto específico de esta convocatoria.

EK\CV GAO-I-2026-07272

Kirol-arlo eskudunak aztertuko du jarduerak oinarri hauetako ezohiko izaera betetzen duen, eta proposamena ebaluazio-batzordeak egingo du.

4. Deialdiaren aurrekontua eta dirulaguntzaren mugak.

Deialdi honen helburuak lortzeko 6.000,00 euroko diru-kopurua dago Orioko Udaleko 2026. urterako aurrekontuaren partida hauetan:

1 0615.481.02.341.00 2026 (5151) Kirolak. Ezohiko dirulaguntzak: 6.000,00 €.

Aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ondoren Udalak baimendutako gastura egokituko da diru-laguntzaren kopurua.

Diru-laguntzaren helburu den jardueraren aurrekontuan aurreikusitako gastuen % 50, gutxienez, Udalaren diru-laguntza ez den beste bideren batetik estali beharko dute kirol-entitateek.

Emango den dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango, inola ere, 1.500 eurotik gorakoa kirol ekitaldi bakoitzeko.

5. Dirulaguntzaren bateragarritasuna.

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako dirulaguntzekin, betiere jardueraren finantzaketa osoa jardueraren benetako gastuak baino handiagoa ez bada.

Eskatzaileak jarduera bererako eskatutako edo jasotako beste dirulaguntza, laguntza, babesletza eta diru-sarrera guztiak adierazi beharko ditu eskaeran. Ondoren beste laguntzarik jasoz gero, Udalari jakinarazi beharko dio.

6. Onuradunak eta baldintzak.

Diru-laguntza hauen onuradun izaera lortzeko betebeharrak azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzaen Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoak izango dira.

Honetaz gain, Udalaren diru-laguntza eskatu ahal izateko, baldintza hauek ere bete beharko dituzte Orioko kirol-entitate edo elkarteek (2025/26 denboraldiari edo 2026. urteari dagozkie, betiere, kirol-modalitate bakoitzaren arabera):

a) Kirol-entitate eskatzaileek, euskarari dagokionez, udal-ordenantzetan zehaztutakoa bete beharko dute.

b) Diru-laguntzaren helburu den jardueraren aurrekontuan aurreikusitako gastuen % 50, gutxienez, Udalaren diru-laguntza ez den beste bideren batetik estali beharko dute kirol-entitateek.

c) Indarrean dagoen legediaren arabera osatuta egon behar dute elkarteek, eta Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundeen erregistroan erroldatuta.

d) Identifikazio Fiskaleko Kodea izan behar dute eta zerga-betebeharretan egunean egon.

e) Entitatearen egoitza Orion izan behar dute.

f) Udalaren lokalen bat erabiltzen duten elkarteek zorrotz bete beharko dituzte Udalarekin hitzartutako erabilera-arauak.

g) Eskola-kirolari buruz Gipuzkoan indarrean dagoen araudia bete beharko dute.

h) Onuradunak egunean egon beharko dute Foru Ogasunarekin, Udal Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituzten obligazio fiskaletan.

7. Baztertzeko arrazoiak.

Deialdi honetatik kanpo geratzen arrazoiak dira:

a) Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzatarako Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako kasuetako jarduerak.

El área deportiva competente analizará si la activity cumple con el carácter extraordinario de estas bases, y la propuesta será realizada por la comisión de evaluación.

4. Presupuesto de la convocatoria y límites de la subvención.

Para alcanzar los objetivos de esta convocatoria se dispone de una cantidad de 6.000,00 euros en las siguientes partidas del presupuesto del Ayuntamiento de Orio para el año 2026:

1 0615.481.02.341.00 2026 (5151) Deportes. Subvenciones Extraordinarias: 6.000,00 €.

Tras analizar todas las solicitudes presentadas, el importe de la subvención se ajustará al gasto autorizado por el Ayuntamiento.

Las entidades deportivas deberán cubrir, al menos, el 50 % de los gastos previstos en el presupuesto de la actividad objeto de la subvención mediante una vía distinta a la subvención municipal.

El importe de la subvención que se conceda no superará, en ningún caso, los 1.500 euros por cada evento deportivo.

5. Compatibilidad de la subvención.

Estas subvenciones son compatibles con otras subvenciones concedidas por otras entidades públicas o privadas, siempre que la financiación total de la actividad no supere los gastos reales de la misma.

El solicitante deberá declarar en la solicitud todas las demás subvenciones, ayudas, patrocinios e ingresos solicitados o recibidos para la misma actividad. Si posteriormente recibiera otra ayuda, deberá comunicarlo al Ayuntamiento.

6. Beneficiarios y requisitos.

Los requisitos para obtener la condición de beneficiario de estas subvenciones serán los dispuestos en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Además, para poder solicitar la subvención municipal, las entidades o asociaciones deportivas de Orio también deberán cumplir los siguientes requisitos (correspondientes a la temporada 2025/26 o al año 2026, según cada modalidad deportiva):

a) Las entidades deportivas solicitantes deberán cumplir, en lo que respecta al euskera, lo especificado en las ordenanzas municipales.

b) Las entidades deportivas deberán cubrir, al menos, el 50 % de los gastos previstos en el presupuesto de la actividad objeto de la subvención mediante una vía distinta a la subvención municipal. El importe de la subvención que se conceda no será, en ningún caso, superior a 1.500 euros por evento deportivo.

c) Las asociaciones deben estar constituidas conforme a la legislación vigente e inscritas en el Registro de Asociaciones y Entidades del Gobierno Vasco.

d) Deberán disponer de Código de Identificación Fiscal (CIF) y estar al corriente de sus obligaciones tributarias.

e) Deben tener su domicilio social en Orio.

f) Las asociaciones que utilicen algún local municipal deberán cumplir estrictamente las normas de uso acordadas con el Ayuntamiento.

g) Deberán cumplir con la normativa vigente en Gipuzkoa sobre deporte escolar.

h) Los beneficiarios deberán estar al corriente de sus obligaciones fiscales con la Hacienda Foral, la Hacienda Municipal y la Seguridad Social.

7. Causas de exclusión.

Son motivos de exclusión de esta convocatoria:

a) Las actividades en los casos previstos en los artículos 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

EK\CV GAO-I-2026-07272

b) Direnagatik edo duten helburuagatik, kirol-jarduerekin inongo loturarik ez dutenak.

c) Edozein motatako zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituzten kirol-entitate edo elkarteek aurkeztutako eskabideak, baita Udalarekin edota Gizarte Segurantzarekin eguneratuta ez daudenak ere.

d) Ez dira aintzat hartuko aurreko edizioetan jasotako dirulaguntza justifikatzeko memoria edo/eta gainontzeko dokumentazioa entregatu ez dituzten jarduerak edo programak.

e) Ez dira aintzat hartuko beren jarduera publikoetan indarrean dagoen legea betetzen ez duten kirol-entitate edo elkarteen eskabideak.

f) Onuradunek indarrean dagoen lege-araudia bete beharko dute; besteak beste, Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerako 4/2005 Legea.

g) Merkataritzako enpresak deialdi honetatik kanpo geratuko dira, nahiz eta beren jarduerak zerikusia izan kirol arloarekin.

8. Eskaeren aurkezpena eta dokumentazioa.

Eskaera egiteko, eranskinean jasotako eskaera-orria bete behar da. Egitasmo edo jardueraren arduradunak eskaera-orri ofizialaren atal guztiak bete beharko ditu eta Udaleko erregistro elektronikoan aurkeztu.

Diru-laguntza-eskaerak, zuriketak, eta bestelako edozein komunikazio elektronikoki egingo beharko da www.orio.eus udalwebgunetik.

Diru-laguntzak eskatzeko epea deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik abenduaren 15 arte izango da.

Eskaera-orri ofizialaz gain, agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

a) Eskabide-orria, behar bezala beteta. I. eranskina.

b) Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundeen erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia.

c) Erakundearen estatutuak.

d) Eskatzailearen nortasun agiriaren kopia.

e) Kontu korrontearen titulartasun agiria.

f) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.

g) Txosten teknikoa, jardueraren antolaketaren zehaztasunak emateko:

— Jardueraren izena/Kirol-modalitatea/Jarduera mota/Jardueraren helburua/Jardueraren deskribapen laburra/Jarduera norentzat den /Parte-hartzaile eta ikuslego kopurua...

— Jarduera noiz eta non izango den (edo izan den).

— Antolaketarako kokalekua eta behar diren materialak (edo erabili direnak).

— Jardueraren komunikazio eta berdintasun plana.

h) Txosten ekonomikoa, jardueraren gastuak eta sarrerak zehaztuta.

i) Erantzukizun zibil eta istripuetarako aseguruaren kopia.

2026an egindako edo hasi aurretik antolatu behar izan diren ezohiko jardueretarako, eskaera jarduera egin ondoren ere aurkeztu ahal izango da, baldin eta deialdian ezarritako epearen barruan aurkezten bada eta jarduera 2026an egin dela egiaztatzen bada. Jarduera hasi aurretik aurkeztutako eskaerak ere onartuko dira.

b) Aquellas que por su naturaleza o finalidad no tengan relación alguna con actividades deportivas.

c) Las solicitudes presentadas por entidades o asociaciones deportivas que no tengan actualizadas sus obligaciones tributarias de cualquier tipo, así como aquellas que no estén al corriente con el Ayuntamiento o con la Seguridad Social.

d) No se tendrán en cuenta las actividades o programas que no hayan entregado la memoria y/o el resto de la documentación justificativa de la subvención recibida en ediciones anteriores.

e) No se tendrán en cuenta las solicitudes de entidades o asociaciones deportivas que no cumplan con la ley vigente en sus actividades públicas.

f) Los beneficiarios deberán cumplir con la normativa legal vigente; entre otras, la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

g) Las empresas comerciales quedarán excluidas de esta convocatoria, aunque sus actividades estén relacionadas con el ámbito deportivo.

8. Presentación de solicitudes y documentación.

Para realizar la solicitud, se debe cumplimentar el formulario de solicitud incluido en el anexo. El responsable del proyecto o actividad deberá rellenar todos los apartados del formulario oficial de solicitud y presentarlo en el registro electrónico del Ayuntamiento.

Las solicitudes de subvención, justificaciones y cualquier otra comunicación deberán realizarse electrónicamente a través de la web municipal www.orio.eus.

El plazo para solicitar las subvenciones será desde la publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el 15 de diciembre.

Además del formulario oficial de solicitud, las personas solicitantes deberán presentar los siguientes documentos:

a) Impreso de solicitud debidamente cumplimentado.

b) Copia del documento que acredite la inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

c) Estatutos de la entidad.

d) Copia del documento de identidad de las personas solicitante.

e) Certificado de titularidad bancaria.

f) Fotocopia del Código de Identificación Fiscal.

g) Informe técnico con los detalles de la organización de la actividad:

— Nombre de la actividad/modalidad deportiva/tipo de actividad/objetivo/ breve descripción/destinatarios/número de participantes y de espectadores...

— Fecha y lugar de celebración de la actividad (o de su celebración, si ya se ha realizado).

— Ubicación destinada a la organización y materiales necesarios (o utilizados).

— Plan de comunicación e igualdad de la actividad.

h) Informe económico con el detalle de los gastos e ingresos de la actividad.

i) Copia del seguro de responsabilidad civil y de accidentes.

En el caso de actividades extraordinarias realizadas en 2026 o que hayan tenido que organizarse antes de su inicio, la solicitud también podrá presentarse una vez celebrada la actividad, siempre que se presente dentro del plazo establecido en la convocatoria y se acredite que la actividad se realizó en 2026. También se admitirán las solicitudes presentadas antes del inicio de la actividad.

EK\CV GAO-I-2026-07272

Jarduera eskaera aurkeztu aurretik egina egoteak ez du, berez, dirulaguntza jasotzeko eskubiderik sortuko; eskaerak deialdiaren gainerako baldintzak bete beharko ditu, ebaluatuak izango dira eta gastuak behar bezala justifikatu beharko dira.

* Jarduera amaituta dagoen kasuetan gehitu beharreko dokumentuak:

— Ekintza benetan egin dela egiaztatzen duen memoria teknikoa: data, lekua, jarduerak, parte-hartzaile kopurua eta emaitzak.

— Gastuen zerrenda sailkatua eta fakturak edo bestelako ordainagiri baliodunak.

— Gastuak ordaindu direla frogatzen duten agiriak.

— Ekintzaren diru-sarreren eta finantzaketa-iturrien balantzea, beste dirulaguntzak barne.

— Publizitate-materialak edo bestelako frogagiriak, Orioko Udalaren laguntza agerian jarri dela eta euskararen erabilera bete dela egiaztatzeko.

— Genero-ikuspegia nola txertatu den azaltzen duen agiria.

— Oinarrietako 11. puntuan eskatutako zerga- eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren egiaztagiriak, edo Udalak horiek kontsultatzeko baimena.

Eskaera egindakoan, agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea izango du kirol-entitate edo elkarteak aurkezteko eta, behin epe hori amaitutakoan, falta dena osatu ez bada, diru-laguntzari uko egiten diola ulertuko da eta eskaera artxibatu egingo da.

Aurreko urteren batean eskaera egindako elkarte batek aldaketaren bat izan badu (estatutuetan, Identifikazio Fiskaleko Kodean eta abar), aldaketari dagozkion agiriak aurkeztu beharko ditu.

Jarduera eskaera aurkeztu aurretik amaituta badago, eskatzaileak eskaerarekin batera aurkeztu beharko ditu oinarri hauen 11. puntuan ageri diren justifikaziorako zerrendatutako agiriak, baita jarduera egin dela eta gastuak ordaindu direla egiaztatzeko frogagiriak ere.

9. Dirulaguntzak emateko ebaluazioa eta irizpideak.

Kirol Mahaiak aztertu eta ebaluatuko ditu eskaerak, eta berak proposatuko ditu lehentasunak eta eman beharreko zenbatekoak. Ondoren, behin betiko diktamena Kirol Batzordean emango da eta dagokion organo ahalduna informatuko du diru-laguntza emateko erabakia hartu dezan.

Diru-laguntzak emateko baloratuko diren puntuak hauek dira:

— Jardueraren ezohiko izaera kalitatea eta bideragarritasuna (20).

— Orioko herritarrei zuzenduta egotea, bertako parte-hartzea eta herriarentzat duen onura (20).

— Parte-hartzaile kopurua, jardueraren iraupena eta hedapena (15).

— Kirol-jardueretatik kanpo geratzeko arriskua duten kolektiboen parte-hartzea sustatzea, hala nola haurrena, adinekoena, desgaitasuna duten pertsonena, emakumeena edo etorkinena (15).

— Emakumeen eta gizonen berdintasuna eta inklusioa sustatzea (10).

— Aurrekontuaren zentzuzkotasuna, beste finantzaketa-iturriak eta eskatzailearen ekarpena (10).

— Antolakuntzarako baliabideak, boluntariotza eta tokiko lankidetza (5).

— Kirol-maila edo jardueraren berezitasuna (5).

— Guztira 100 puntu.

El hecho de que la actividad se haya realizado antes de presentar la solicitud no generará, por sí solo, derecho a recibir una subvención. La solicitud deberá cumplir el resto de los requisitos de la convocatoria, será evaluada y los gastos deberán justificarse debidamente.

* Documentación adicional que deberá presentarse cuando la actividad ya haya finalizado:

— Memoria técnica que acredite que la actividad se ha realizado: fecha, lugar, actividades, número de participantes y resultados.

— Relación clasificada de los gastos y facturas u otros justificantes válidos.

— Documentos acreditativos del pago de los gastos.

— Balance de los ingresos y las fuentes de financiación de la actividad, incluidas otras subvenciones.

— Materiales publicitarios u otros justificantes que acrediten que se ha hecho visible la colaboración del Ayuntamiento de Orio y que se ha cumplido lo relativo al uso del euskera.

— Documento que explique cómo se ha incorporado la perspectiva de género.

— Certificados acreditativos de estar al corriente de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, exigidos en el apartado 11 de las bases, o autorización para que el Ayuntamiento los consulte.

Si al presentar la solicitud faltara algún documento, la entidad o asociación deportiva dispondrá de un plazo de 10 días para aportarlo. Si, una vez finalizado dicho plazo, no se hubiera subsanado la falta, se entenderá que desiste de la solicitud y esta se archivará.

Si una asociación que presentó una solicitud en años anteriores hubiera experimentado algún cambio –en sus estatutos, en el Código de Identificación Fiscal u otros–, deberá presentar la documentación relativa a dicho cambio.

Si la actividad ya hubiera finalizado antes de presentar la solicitud, la persona solicitante deberá aportar junto con esta los documentos de justificación enumerados en el apartado 11 de las bases, así como los justificantes que acrediten que la actividad se ha realizado y que los gastos se han pagado.

9. Evaluación y criterios para la concesión de subvenciones.

La Mesa de Deportes examinará y evaluará las solicitudes, y propondrá las prioridades y los importes que deban concederse. A continuación, la Comisión de Deportes emitirá el dictamen definitivo y lo trasladará al órgano competente para que adopte la resolución de concesión de la subvención.

Para conceder las subvenciones se valorarán los siguientes aspectos:

— Carácter extraordinario, calidad y viabilidad de la actividad (20 puntos).

— Que esté dirigida a la ciudadanía de Orio, participación local y beneficio para el municipio (20 puntos).

— Número de participantes, duración y alcance de la actividad (15 puntos).

— Promoción de la participación de colectivos que corren el riesgo de quedar excluidos de las actividades deportivas, como la infancia, las personas mayores, las personas con discapacidad, las mujeres o las personas migrantes (15 puntos).

— Promoción de la igualdad entre mujeres y hombres y de la inclusión (10 puntos).

— Adecuación del presupuesto, otras fuentes de financiación y aportación de la entidad solicitante (10 puntos).

— Recursos organizativos, voluntariado y colaboración local (5 puntos).

— Nivel deportivo o singularidad de la actividad (5 puntos).

— Total: 100 puntos.

EK\CV GAO-I-2026-07272

Dirulaguntza jaso ahal izateko gutxienez 30 puntu lortu beharko dira. Puntuazio berdinketa gertatuz gero, Orioko herritarren parte-hartze handiagoa sustatzen duen jarduerak izango du lehentasuna; berdinketak jarraitzen badu, puntuazio handiagoa duen jarduerak 2. irizpidean izango du lehentasuna.

10. Ebazpena eta jakinarazpena.

Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena organo eskudunak hartuko du, aplikatu beharreko prozeduraren eta epeen barruan. Ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie, eta dagokion publizitatea egingo da araudiak agintzen duen moduan.

Ebazpenean dirulaguntzaren zenbatekoa, jarduera, baldintzak, ordainketa-modua eta justifikatzeko epea zehaztuko dira.

11. Dirulaguntzen ordainketa.

Jarduera eskaera aurkeztu eta dirulaguntza eman aurretik amaituta badago, dirulaguntza justifikazioa onartu ondoren ordainduko da, eta ez da aurrerakinik emango.

Jarduera oraindik egin gabe badago dirulaguntza ematen denean, ebazpenean aurrerakin bat aurreikusi ahal izango da, baldin eta indarreko araudiaren eta Udalaren aurrekontu-araubidearen arabera bidezkoa bada. Gainerakoa jarduera egin eta justifikazioa onartu ondoren ordainduko da bi zatitan:

— Lehen ordainketa: esleitutako zenbatekoaren % 75, dirulaguntza emateko ebazpena onartu ondoren, aurrerakin gisa.

— Bigarren ordainketa: gainerako % 25a, jarduera egin eta justifikazioa onartu ondoren.

Dirulaguntzaren ordainketa egiteko, onuradunak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Udalarekiko zorrak.

Justifikazioa jarduera bukatu eta bi hilabeteko epean aurkeztuko da, eta, nolanahi ere, 2027ko otsailaren 28a baino lehen. Justifikazioak honako hauek jasoko ditu:

a) Jardueraren memoria teknikoa: egindako jarduera, parte-hartzaile kopurua, emaitzak eta desbideratze edo aldaketa esanguratsuak.

b) Jardueraren diru-sarreren eta gastuen balantzea, erakundearen ordezkariak sinatuta.

c) Gastuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna, agiriaren data eta zenbatekoa adierazita.

d) Gastuen fakturak edo baliozko agiri baliokideak eta horien ordainketaren frogagiriak, Udalak eskatzen duenean edo justifikazio-moduak hala eskatzen duenean.

e) Beste erakunde batzuen dirulaguntza, babesletza edo diru-sarrerak adierazten dituen agiria.

f) Publizitatean Orioko Udalaren laguntza adierazi dela egiaztatzen duten materialak edo irudiak.

g) Jardueraren komunikazioan euskararen erabilera eta genero-ikuspegia nola txertatu diren azaltzen duen laburpena.

Dirulaguntza justifikatzeko ezin izango dira zenbatu jarduerarekin zuzeneko loturarik ez duten gastuak, ezta deialdian zehaztutako epeetatik kanpoko gastuak ere. BEZa gastutzat hartu ahal izango da onuradunak berreskuratu edo konpentsatu ezin duenean soilik.

Udalak egiaztapenak egin ahal izango ditu, eta beharrezko agiri gehigarriak eskatu. Dirulaguntzaren zenbatekoa jardueraren azken gastuak edo beste finantzaketa-iturri batzuek justifikatzen duten kopurua baino handiagoa bada, dirulaguntza murriztu edo dagokion zenbatekoa itzultzeko eskatu ahal izango da.

12. Publizitatea, hizkuntza eta berdintasuna.

Diruz lagundutako jardueren publizitatea euskaraz egingo da; elebitan ere egin ahal izango da, betiere euskarari lehentasuna emanez.

Para poder recibir una subvención será necesario obtener al menos 30 puntos. En caso de empate, tendrá prioridad la actividad que fomente una mayor participación de la ciudadanía de Orio. Si persiste el empate, tendrá prioridad la actividad con mayor puntuación en el criterio 2.

10. Resolución y notificación.

La resolución de concesión o denegación de la subvención será adoptada por el órgano competente, dentro del procedimiento y los plazos aplicables. Se notificará a las personas solicitantes y se le dará la publicidad correspondiente, de acuerdo con lo establecido en la normativa.

La resolución especificará el importe de la subvención, la actividad subvencionada, las condiciones, la forma de pago y el plazo de justificación.

11. Pago de las subvenciones.

Si la actividad ya se ha llevado a cabo cuando se presenta la solicitud y antes de concederse la subvención, esta se abonará una vez aprobada la justificación y no se concederán anticipos.

Si, en el momento de concederse la subvención, la actividad aún no se ha realizado, la resolución podrá prever un anticipo, siempre que resulte procedente conforme a la normativa vigente y al régimen presupuestario municipal. El resto se abonará en dos pagos, una vez realizada la actividad y aprobada la justificación:

— Primer pago: el 75 % del importe concedido, como anticipo, una vez aprobada la resolución de concesión.

— Segundo pago: el 25 % restante, una vez realizada la actividad y aprobada la justificación.

Para poder cobrar la subvención, la entidad beneficiaria deberá estar al corriente de sus obligaciones tributarias, con la Seguridad Social y con el Ayuntamiento.

La justificación se presentará en el plazo de dos meses desde la finalización de la actividad y, en todo caso, antes del 28 de febrero de 2027. Deberá incluir:

a) Memoria técnica de la actividad: descripción de lo realizado, número de participantes, resultados y desviaciones o modificaciones significativas.

b) Balance de ingresos y gastos de la actividad, firmado por la persona representante de la entidad.

c) Relación clasificada de los gastos, con indicación del acreedor, la fecha del documento y el importe.

d) Facturas u otros documentos justificativos válidos de los gastos, así como justificantes de pago, cuando lo solicite el Ayuntamiento o lo exija la modalidad de justificación.

e) Declaración de las subvenciones, patrocinios u otros ingresos recibidos de otras entidades.

f) Materiales o imágenes que acrediten que se ha hecho constar la colaboración del Ayuntamiento de Orio en la publicidad.

g) Resumen de cómo se han incorporado el uso del euskera y la perspectiva de género en la comunicación de la actividad.

No podrán computarse para justificar la subvención los gastos que no estén directamente relacionados con la actividad ni los realizados fuera de los plazos establecidos en la convocatoria. El IVA solo podrá considerarse gasto cuando la entidad beneficiaria no pueda recuperarlo ni compensarlo.

El Ayuntamiento podrá realizar comprobaciones y solicitar documentación adicional. Si el importe de la subvención supera la cantidad justificada por los gastos finales de la actividad o por otras fuentes de financiación, podrá reducirse la subvención o exigirse la devolución de la cantidad correspondiente.

12. Publicidad, idioma e igualdad.

La publicidad de las actividades subvencionadas se realizará en euskera; también podrá ser bilingüe, siempre dando prioridad al euskera.

EK\CV GAO-I-2026-07272

Dirulaguntzaren onuradunek diruz lagundutako kirol ekitaldiaren publizitatean eta komunikazio guztietan Orioko Udalaren laguntza agerian utzi beharko dute.

Horretarako, ekitaldiari lotutako publizitate material guztietan (programak, kartelak, webguneak, sare-sozialak, prentsa-oharrak) administrazioaren izena eta logotipo instituzionala agertu beharko dira.

Jardueran genero-berdintasuna eta diskriminaziorik eza errespetatu beharko dira.

13. Baldintzak ez betetzea eta itzulketa.

Onuradunak dirulaguntza emateko ebazpenean edo oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak osorik edo zati batean betetzen ez baditu, emandako dirulaguntza baliogabetu edo murriztu ahal izango da, eta dagokion kasuan jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra izango du.

14. Datu pertsonalak.

Eskabidean jasotako datu pertsonalak dirulaguntza-deialdia kudeatzeko erabiliko dira, datu-babesari buruzko indarreko araudiarekin bat. Eskatzaileek Orioko Udalaren pribatutasun-oharrean jasotako informazioa kontsultatu ahal izango dute.

15. Interpretazioa eta araudi osagarria.

Oinarrion interpretazioari dagokionez sortzen diren zalantzak ebazteko eskumena dirulaguntza ematen duen organoari dagokio. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko kasuetan, indarrean dagoen araudia aplikatuko da, bereziki dirulaguntzen arloan aplikatzekoa den legeria.

Las entidades beneficiarias deberán hacer constar la colaboración del Ayuntamiento de Orio en toda la publicidad y comunicación del evento deportivo subvencionado.

A tal efecto, en todos los materiales publicitarios relacionados con el evento –programas, carteles, páginas web, redes sociales y notas de prensa– deberán figurar el nombre de la Administración y su logotipo institucional.

En la actividad deberán respetarse la igualdad de género y la no discriminación.

13. Incumplimiento y reintegro.

Si la entidad beneficiaria incumple total o parcialmente las condiciones establecidas en la resolución de concesión de la subvención o en las bases reguladoras, la subvención concedida podrá revocarse o reducirse y, en su caso, deberá devolver las cantidades percibidas.

14. Datos personales.

Los datos personales incluidos en la solicitud se utilizarán para gestionar la convocatoria de subvenciones, de conformidad con la normativa vigente en materia de protección de datos. Las personas solicitantes podrán consultar la información recogida en el aviso de privacidad del Ayuntamiento de Orio.

15. Interpretación y normativa complementaria.

La competencia para resolver las dudas que surjan sobre la interpretación de estas bases corresponde al órgano concedente de la subvención. En los casos no previstos en ellas, se aplicará la normativa vigente, en particular la legislación aplicable en materia de subvenciones.

EK\CV GAO-I-2026-07272

ORIO
marea bizian

ORIO KIROLA

I ERANSKINA. ESKAERA-ORRIA / ANEXO I. IMPRESO DE SOLICITUD

ESKATZAILEA - *SOLICITANTE*					
1. abizena *1er apellido*		2. abizena *2º apellido*			
Izena edo sozietatearen izena *Nombre o Razón Social*			NAN/AIZ/IFZ *DNI/NIE/CIF*		

☐ Emakumea / *Mujer* ☐ Gizona / *Hombre* ☐ Ez bitarra / *Persona no binaria* ☐ Besteak / *Otros*

HONAKO ELKARTE HAU ORDEZKATZEN DUELA - *EN REPRESENTACIÓN DE LA ENTIDAD*			
Izena / Enpresaren izena *Nombre / Razón social*		IFK *CIF*	
Elkartearen zuzendaritza-taldean duzun kargua:/ *Cargo que Vd. ostenta en la asociación:*			

KOMUNIKAZIOA-JAKINARAZPENA EGITEKO DATUAK - *DATOS PARA LA COMUNICACIÓN-NOTIFICACIÓN*									
Kalea *Calle*					Zenbakia *Número*		Letra *Letra*		Eskailera *Escalera*	
Solairua *Piso*		Atea *Mano*		Posta-kodea *Cód. Postal*		Herria *Municipio*				
Udalerria *Municipio*					Lurraldea *Provincia*					
1. Telefon. *Teléfono 1*		2. Telefon. *Teléfono 2*			Posta elektronikoa *Correo Electrónico*					

EKARRI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA: *(Adierazi X batez aurkeztutako dokumentazioa)*	**DOCUMENTACIÓN A ADJUNTAR:** *(Señalar con una X la documentación aportada)*
1. Eskabide-orria, behar bezala beteta. **I. eranskina (Udalaren webgunean eskuragarri)**	1. Impreso de solicitud debidamente cumplimentado. Anexo I. (Disponible en la página web del Ayuntamiento).
Erakunde eskatzaileak berak sinatuta, erakundearen ziurtagiri elektroniko baliodun bat duenean. Ziurtagiri hori ez badu, erakundearen ordezkariak sinatu beharko du eskabidea, eta, elkarteak Administrazioarekin harreman telematikoak izan behar dituenez, bere ziurtagiri elektroniko pertsonalaren bidez identifikatu beharko du bere burua. Kasu horretan, sinatzaileak dagokion ahalordetzearen bidez egiaztatu beharko du bere ordezkaritza, dela Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoaren bidez, apud acta/apud dataren bidez edo eska daitekeen justifikazio-dokumentazioaren bidez.	Firmado por la propia entidad solicitante, cuando disponga de un certificado electrónico de entidad válido. En caso de no poseer dicho certificado, la solicitud deberá ser firmada por la persona representante de la entidad, quien, dado que la asociación está obligada a relacionarse telemáticamente con la Administración, deberá identificarse mediante su certificado electrónico personal. En este supuesto, la persona firmante deberá acreditar la representación que ostenta mediante el correspondiente apoderamiento, ya sea a través del Registro Electrónico de Apoderamientos, mediante apud acta/apud data o mediante la documentación justificativa que resulte exigible.
2. Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundeen erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia.	2. Copia del documento que acredita la inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.
3. Erakundearen estatutuak.	3. Estatutos de la entidad.
4. Eskatzailearen nortasun agiriaren kopia.	4. Copia del documento de identidad de la persona solicitante
5. Kontu korrontearen titulartasun agiria	5. Certificado de titularidad bancaria
6. Identifikazio Fiskaleko kodearen fotokopia	6. Fotocopia del Código de Identificación Fiscal (CIF).
7. Txosten Teknikoa.	7. Informe técnico
8. Txosten ekonomikoa	8. Informe económico
9. Erantzunkizun zibil eta istripuetarako aseguruaren kopia	9. Copia de la póliza del seguro de responsabilidad civil y accidentes.
Jarduera amaituta bada, aurkeztu beharrekoak:	Documentación que se debe presentar una vez finalizada la actividad:
- **Memoria Teknikoa.**	- Memoria técnica.
- **Gastuen zerrenda sailkatua eta fakturak.**	- Relación clasificada de los gastos y facturas correspondientes.
- **Diru-sarreren eta finantzaketa-iturrien balantzea.**	- Balance de ingresos y fuentes de financiación.
- **Publizitate materiala.**	- Material publicitario.

EK\CV GAO-I-2026-07272

- **Genero ikuspegia txertatu dela azaldu duen agiria.** - **Oinarrietako 11. puntuan eskatutako zerga- eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren egiaztagiriak, edo Udalak horiek kontsultatzeko baimena.**	- Documento explicativo de cómo se ha incorporado la perspectiva de género. - Certificados acreditativos del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social exigidos en el punto 11 de las bases, o autorización al Ayuntamiento para consultar dichos datos.

DATUAK BABESTEKO INFORMAZIOA / *INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS*

2016/679 Erregelamendu Orokorraren (DBEO) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (DBLOPDGDD) arabera, eskatzaileari jakinarazten zaio emandako datu pertsonalak honako baldintzen arabera tratatuko direla:	Conforme al Reglamento 2016/679 General de Protección de Datos y LO 3/2018, de 5 de diciembre (LOPDGDD), se informa a la solicitante que se tratarán los datos personales facilitados en los términos siguientes:
Arduraduna: Orioko udala – dpo@orio.eus	**Responsable:** Ayuntamiento de Orio - dpo@orio.eus
Helburua eta datuak gordetzeko epeak edo irizpideak: Dirulaguntzen izapidetzea.	**Finalidad y plazos o criterios de conservación de los datos:** Tramitación de las subvenciones.
Legitimazioa: Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta Udal Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak ezarritako lege-betebeharra.	**Legitimación:** Obligación legal derivada de la Ley General de Subvenciones y de la Ordenanza General Municipal de Subvenciones.
Kontserbazioa: Datuak gordeko dira aipatutako helburua betetzeko behar den denbora zehatz-mehatz, eta, edozein kasutan, aplikatu beharreko artxibo-araudiak ezartzen duena errespetatuz.	**Conservación:** Los datos se conservarán durante el tiempo estrictamente necesario para cumplir con la finalidad mencionada, respetando en todo caso el que determine la normativa de archivo aplicable.
Hartzaileak: Ez zaie daturik lagako hirugarrenei, lege-betebeharrik izan ezean. Arduradunak soilik jakinaraziko dizkie datuak agintari eskudunei, betebehar legalak betetzeko edo agintaritza-eskaerei erantzuteko beharrezkoa denean.	**Destinatarias/os**: No se cederán datos a terceros, salvo obligación legal. La/el responsable únicamente comunicará los datos a las autoridades competentes cuando resulte necesario para el cumplimiento de obligaciones legales o requerimientos oficiales.
Eskubideak: Eskatzaile diren pertsonak eta elkarteek honako eskubideak erabil ditzakete: atzipena, zuzenketa, mugaketa, ezabaketa, aurka egitea edo eramangarritasuna. Horretarako, idatziz jo beharko dute Orioko udalaren erregistro orokorrera edo datu-babeserako ordezkariaren helbide elektronikora dpo@orio.eus). NANaren kopia edo sinadura elektroniko aitortua erantsi beharko da.	**Derechos:** Las personas y asociaciones solicitantes pueden ejercer los derechos de acceso, rectificación, limitación, supresión, oposición o portabilidad, dirigiéndose por escrito al registro del Ayuntamiento de Orio o a la dirección electrónica de la/del Delegada/o de Protección de datos (dpo@orio.eus). Se deberá adjuntar copia de DNI o firma electrónica reconocida.
Informazio gehigarria: Kontsulta daiteke hemen: http://www.orio.eus.	**Información adicional:** Puede consultarse en http://www.orio.eus
Erreferentzia juridikoa: Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa.	**Referencia legal:** Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.
Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.	Asimismo, se puede presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos.

EK\CV GAO-I-2026-07272

Orion, ziurtagiri elektronikoaren sinaduran agertzen den datan.	En Orio, en la fecha que conste en la firma del certificado electrónico.
Eskabide hau elektronikoki sinatzen da, entitatearen ziurtagiri elektronikoaren bidez edo behar bezala egiaztatutako ordezkariaren ziurtagiri elektroniko pertsonalaren bidez.	La presente solicitud se firma electrónicamente, ya sea mediante el certificado electrónico de la entidad o mediante el certificado electrónico personal de la persona representante debidamente acreditada.
Eskabide honen sinadurak berekin dakar eskatzaileak aurkeztutako eskaera osatzen duten dokumentu guztien sinadura eta onespena, besteak beste, instantziarena, erantzukizun-adierazpenarena, interoperabilitate-zerbitzua erabiltzeko ez-oposizioarena eta datu-babesari buruzko informazioarena.	La firma de la presente instancia implica la firma y conformidad con la totalidad de los documentos que integran la solicitud presentada por la persona o entidad solicitante, incluidos —entre otros— la instancia, la declaración responsable, la no oposición a la utilización del servicio de interoperabilidad y la información sobre protección de datos

EK\CV GAO-I-2026-07272